



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urriaren 23a

84. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arruntan bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldiarako. Osoko zuzenketak (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da jarraipena eman diezaion zenbait ikas-tetxetako garraio publikoaren finantzaketari. Hezkuntza Batzordeak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat presta dezan Donapea IPIaren instalazioak orain dauden tokian mantentzeko aukerari buruz. Mozioa erretiratzea (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko Lehendakariak asmorik ote duen talde politikoak biltzeko, langabeziaren aurkako neurriak hartzearen, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (6. or.).
- Galdera, aurrekontuko 132 milioi euro blokeatzeari buruzko foru aginduaren edukiari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (6. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen landa-larrialdien premiazko zerbitzuaren eta zerbitzu jarraituaren antolamenduari buruzko proposamena erretiratzeko edo aldatzeko, Marisa De Simón Caballero andreak egina (7. or.).
- Galdera, bertan egon beharrik gabeko guardien kostua txikitzei buruzkoa. Galdera erretiratzea (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutzako Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorraren gaineko zenbait auziri buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (8. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.**

**OSOKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen hurrengo Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak: "Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako". Proiektu hori 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**1. ZUZENKETA**

**BILDU-NAFARROA**

**PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, Gobernuari itzul dakion Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen Foru Lege proiektua.

Zioak: Ohartzen gara krisi ekonomiko larri bat bizi dugula eta krisi ekonomiko horrek ondorio nabarmenak dituela ekonomiaren alderdi guztietan eta, jakina, erakundeen jardun publikoan.

Halere, ez gatoz inolaz ere bat Nafarroako Gobernuak azken urteotan ezarri duen finantza-sistemearekin. Jarduteko tarterik gabe utzi dira toki entitateak, Nafarroako Gobernuaren nahieraren baitan, ez zaie beren eskumenak baliatzeko nahikotasun ekonomikorik ziurtatu, eta zer esanik ez, Nafarroako Gobernuak alde batera utzi dituen

eskumenak baliatzekorik ere (Otik 3 urtera bitarteko eskolak, musika eskolak).

Finantza-nahikotasuna ziurtatu behar dugu transferentzia arrunten legean; izan ere, kapital-transferentzietan eta beste departamentu batzuen transferentzietan (Hezkuntza, Gizarte Politikak...) murrizketa-politika ari da aplikatzen, eta toki entitateen finantza-ahalmena modu kezagarrian ari da murrizten.

Toki entitateen egoera oso larria da: ekonomikoki itota eta baliabiderik gabe daude. Toki entitateek –herriarengandik eta bizilagunengandik gertuen dauden erakundeak– beren herritarren eskubideak ziurtatu behar dituzte, eta krisi larria bizi den une honetan hain beharrezkoak diren gizarte politikak ere bai.

Horregatik guztiagatik eskatzen dugu:

Proiektuetarako diru-laguntzetan –Nafarroako Gobernuaren borondatearen mendekoak, beti-oinarritzen den udal finantzaketaren eredu aldaztea, eta haren orde ezartzea udalei ahalmen ekonomikoa eta beren politikei eta inbertsioei dagokienez erabakitzeko ahalmena emanen dien beste bat.

Abian jartzea udalen finantzaketa esparru orokor eta egonkor bat, behar adinakoa, toki entitateek Nafarroako Gobernuaren tributuetan parte hartzearen bidez, eta Nafarroako Gobernuak bildutako guztiaren % 15 bideratzea toki ogasunen funtsera, udal entitateen artean banatzeko.

Nafarroako Gobernuari eskatzea eskumenen deszentralizazio handiagoa, udalen mesedetan, ekonomia- eta finantza-kontusailekin batera; bereziki, gizarte-babeseko eta gizarte-zerbitzuetako politikei buruzkoak.

## 2. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Gobernuari itzul dakion ondoko Foru Lege proiektua: toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituena 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

Zioak: Beste behin ere, aurrean dugun lege proiektuak ez du bermatzen, ezta aukerarik ematen ere, toki entitateek benetako autonomia izan dezaten. Foru Lege proiektu honek –toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituena 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako– betiko eskema errepikatzen du, oso urrun dagoena nahikotasun finantzarioa benetan bermatuko duen finantzaketa-eredu batetik, horretarako Nafarroako toki entitateek modu egokian hartu beharko bailukete parte Nafarroako Foru Komunitatearen tributuetan eta banaketa justu bat egin beharko bailitzateke, lurralde-oreka bermatzeko.

Foru Lege proiektuak ez du ezartzen zer irizpideren arabera zehaztuko den zein heinetan hartuko duten parte toki ogasunek tributu bidezko diru-sarreretan, eta emaitza gisa xedatzen duena da hasierako zenbateko bat izan den duela parte hartzeko funtsak 2013ko ekitaldirako; 196.580.332 euro, hain zuzen, eta aurrekontu orokorretan jasoko da. Ateratzen den zenbatekoa, biztanle bakoitzeko kalkulata, nabarmenki txikiagoa da, ordea, historikoki tributu-araubide propioa izan duten Nafarroatik hurbileko beste errealitate batzuek dutena baino.

1. Foru Lege berriak, gure ustez, irizpide serio bat izan behar luke abiapuntu, oinarri izango lituzkeena udalek beren finantzaketarako dituzten behar objektiboak. Hala, zintzo beteko litzateke Foru Lege proiektuko zioen azalpenean xedatutakoa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 259. artikulua aipatzen baita. Artikulu horren arabera, Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta haien esku utzitako helburuak bete ditzaten, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaizkie. Hala ere, proiektu honetan nagusi den irizpidea ez da hori, baizik eta Administrazio autonomikoak bere defizit helburua betetzeko duen interesa eta horretarako ezarri beharreko aurrezpen-neurriak.

Premiazkoa da Nafarroako Comptos Ganberak azterlan serio eta xehe bat egitea Nafarroako uda-

len eta kontzejuen gaur egungo gastu arruntari buruz. Azterketa horretan modu objektiboan planteatu beharko litzateke zer diru-kopuru behar den Nafarroako toki entitateek aurre egin diezaieten baliabide nahikorekin herritarrei legez eskaini beharreko zerbitzuen gastuei, bai eta benetan zer gastu dituzten udalek berezkoak ez dituzten esku-menetan. Azterlan serio bat toki entitateak finantzatzeko modu berri bati buruz. Berraztertu beharra dago zer diru kopuru banatu behar den eta nola, baldin eta bermatu nahi badugu toki entitateen benetako finantza-nahikotasuna, dituzten eskumenak erabiltzeko balioko diena. Eta argi dago hori proiektu honekin ez dela lortzen.

2. Baina, gainera, nahikoa ez den diru-kopuru bat hartzen da abiapuntu, jadanik ez duena errespetatu ere egiten 2009tik 2012ra bitarteko urteetarako aurreko legean ezarri zen zenbatekoa –behar diren eguneratzeekin–, hau da, azaroaren 20ko 19/2008 Foru Legean ezarri zena. Horrela, transferentzia arruntetarako funtsean, 161.045.317 euro jarri ziren hasieran, eta erabaki zen diru kopuru hori urtero handitzen joatea; irizpide honen arabera, hain zuzen: Kontsumoko Prezioen Indizea, ekainetik ekainera kontuan harturik, gehi bi puntu. Hori horrela, foru lege horren aplikazio-epea kontuan hartuta (2008-2012), aurrekontuetan, 2013rako, 183.113.662 euro beharko zuten funts horretarako, eta, aldiz, 167.939.611 aurreikusitako dira.

19/2008 Foru Legearen indarraldian gertatutakoa aztertzen badugu, ikusten dugu hark ezarritako irizpidea, benetan, lehenbiziko bi aplikazio-urteetan bakarrik bete zela (2009 eta 2010). 2011ko azaroan, behar zen legezko aldaketa egin zen zenbateko hori % 2,61 murrizteko, eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, 2012rako, 2011rako baino % 2 gutxiago ezarri zuten, eta horri gehitu behar zaio, gainera, urte horretan ez zela egin tokatzen zen handitzea egin –% 5ekoa izan den–. Beraz, 2012an, aipatutako foru legeko irizpidearen arabera tokatzen zena baino % 7 gutxiago.

Ondorioa da Nafarroako udalek bi urtetan, egiaz, legez egokitzen zitzaiena baino 16 milioi euro gutxiago jaso dituztela (4 milioi gutxiago 2011n eta 12 milioi gutxiago 2012an). Kontuan izan behar da KPIk, epe horretan, % 5 baino gehiago egin duela gora Nafarroan, eta, bestalde, biztanle-kopurua ia % 3 handitu dela; horrek guztiak eragina izan du Nafarroako toki entitateek eman beharreko zerbitzuen eskarian.

Foru Lege proiektuaren abiapuntua da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen ez-betetzea, lege horrek agindutako lau urteko aplikazio-epea bira murrizten baitu proiektuak, arrazoibide hartuta, batetik,

gaur egungo krisia eta horrek eragindako salbuespen-egoera, eta, bestetik, oso gutxi barru onestekoa dela Nafarroako Toki Mapa berria. Edonola ere, zuzenketa hau aurkeztu duen parlamentu-taldearen iritziz, arrazoiak gutxienez ere agintzen zuena zen epe iragankor honetarako bi urteko luzapena aplikatzea aurreko foru legean ezarritako araubideari, eta transferentzia arruntetarako abiapuntuko kopuru gisa, 2013rako, 19/2008 Foru Legeak ezarritako irizpideei eutsi izanez gero suertatuko zena, eta ez proposatzen dena, 15.174.051 euro gutxiago jarriko baitira funtsean.

Foru Lege proiektuak proposatzen duenak, beraz, ez dio udalen finantzaketari eutsiko, eta, gainera, ez da inola ere kontuan hartu udaletan gastua handitu egin dela, handitu egin delako biztanle-kopurua, areagotu langabezia eta, ondorioz,

2009-2012 epean, handitu gizarte-zerbitzuen eskaria.

3. Azkenik, ez da batere argitzen zein izanen den toki finantzaketaren panorama inbertsioen arloan; izan ere, proiektuak, aurreko foru legeek ez bezala, ez du kapital-transferentziei buruz ezer esaten. Zioen azalpenean, proiektuak martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legea aipatzen du –2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena–; lege horren bidez, Toki Inbertsioen Planaren indarraldia luzatu egin zen, plan berria onetsi arte hain justu, eta plan berri hori, hasiera batean, sine die dago atzeratua. Horrenbestez, proiektuak ez dakar diru hori, eta kinka larrian jartzen du udalek 2013an eta 2014an izanen duten inbertsio-ahalmena, baita inbertsio horiei aurre egiteko gauza diren udalen kasuan ere.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da jarraipena eman diezaion zenbait ikastetxetako garraio publikoaren finantzaketari.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2012ko urriaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da jarraipena eman diezaion zenbait ikastetxetako garraio publikoaren finantzaketari".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen

du finantzatzen jarrai dezan Berriozarko hirigunetik Mendialdea 1 eta Mendialdea 2 ikastetxeetarako eskola-garraio publikoaren zerbitzua.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du gisa bereko arazoa duten Nafarroako beste ikastetxe batzuetako errealitatea azter dezan eta, bideko segurtasunak beharrezkoa egiten baldin badu berdin joka dezan Hezkuntza Departamentuak."

Iruñean, 2012ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat presta dezan Donapea IPIaren instalazioak orain dauden tokian mantentzeko aukerari buruz.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak, 2012ko urriaren 10ean egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Mari-sa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat presta dezan Donapea IPIaren insta-

lazioak orain dauden tokian mantentzeko aukerari buruz.

Mozio hori 2012ko irailaren 28ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko Lehendakariak asmorik ote duen talde politikoak biltzeko, langabeziaren aurkako neurriak hartze-arren.***PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko Lehendakariak asmorik ote duen talde politikoak biltzeko, langabeziaren aurkako neurriak hartze-arren.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, urriaren 25eko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ahoz erantzun dezan:

Ba al duzu talde politiko guztiak biltzeko asmorik, langabeziaren aurkako neurriak hartze-arren, erkidegoaren egoerari buruzko azken eztabaidan Nafarroa Bai parlamentu-taldeak proposatu zizun legez?

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

**Galdera, aurrekontuko 132 milioi euro blokeatzeari buruzko foru aginduren edukiari buruzkoa.***JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, aurrekontuko 132 milioi euro blokeatzeari buruzko foru aginduaren edukiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den urriaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Iragan osteguneko Osoko Bilkuran, aurrekontuko 132 milioi euro blokeatzeari buruzko foru aginduaren berri izan genuen. Zein da foru agindu horren edukia? Zein horren ondorio praktikoak? Zergatik ez da gaur arte ezagutarazi?

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

---

**Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen landa-larrialdien premiazko zerbitzuaren eta zerbitzu jarraituaren antolamenduari buruzko proposamena erretiratzeko edo aldatzeko.**

**MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen landa-larrialdien premiazko zerbitzuaren eta zerbitzu jarraituaren antolamenduari buruzko proposamena erretiratzeko edo aldatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun-erkidegoak nahiz gizarte-kolektibo askok "osasun arloko laguntzaren eredu" berriari egindako kritikak eta oposizioa ikusita –eredu berria maitezean aurkeztu zuen Osasuneko kontseilari Vera andreak–, Nafarroako Gobernuak ba al du premiazko zerbitzuaren antolamenduari buruzko proposamena erretiratzeko edo aldatzeko asmorik, zehazki eredu horretan jasotzen diren landa-larrialdien eta zerbitzu jarraituaren antolamenduari eta oinarrizko laguntzari dagokienez?

Aldaketaren bat egiteko asmorik baldin badu, zertan datza aldaketa?

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, bertan egon beharrik gabeko guardien kostua txikitzeari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2012ko urriaren 9an egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkezturiko bertan egon beharrik gabeko guardien kostua txikitzeari buruzko galdera erretiratu izanari dagokionez.

Galdera hori 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Galdera, Nafarroako Kutzako Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorren gaineko zenbait auziri buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Kutzako Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorren gaineko zenbait auziri buruzkoa, Osoko Bilkuran izapidetu

dadila, gaurkotasun handiko galdera gisa. Galdera 2012ko urriaren 19ko 83. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera